


IV.BERDINTASUN PLANAREN LABURPENA EIBARKO UDALA

2016 - 2019




AURKIBIDEA

- Sarrera
- Lege esparrua
- Printzipio gidariak
- Egiturak
- Metodologia
- III. Planaren ebaluazioaren emaitza nagusiak
- IV. Berdintasun plana: egitura eta jarraibideak

PRINZIPIO GIDARIAK


- **Konpromisoa eta inplikazioa:** Eibarko Udalak konpromiso irmoa mantentzea.
- **Parte hartzea:** Hiritarren hurbiltasuna eta parte hartzea.
- **Egokitasuna:** Plana hiriaren errealitatera egokitu behar da.
- **Aniztasuna:** Eibar hiri anitza da. Sexu, jatorri, genero, kultura, erlijio, maila ekonomiko, adin edo bizitza eredu aniztetera egokitu beharko da plana.
- **Baliabideen egokitasuna:** Garapenerako beharrezko dituen baliabideak esleitzea eta hiriak dituen baliabideen erabilera.

Ebaluazio prozesuan parte hartu zuten EGITURAK



METODOLOGIA

(EBALUAZIOA, ZIRIBORROA, KONTRASTEAK, PLANA)



III. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZA NAGUSIAK

○ Udala:

- “Zeharkakotasun” kontzeptua teorian onartzen da, baina ez da praktikara eramaten.
- Udalean euskararen ezarpenarekin gauzatutakoa jarraitu beharreko eredu bat izan beharko litzatekeela ikusten da. Euskara Sail independente bat egoteak zeharkakotasuna eta Euskararen Sustapenerako Ekintza Planaren betetzea errazten du.
- Berdintasun Zerbitzuaren eta III. Berdintasun Planean inplikaturako gainontzeko sailen arteko komunikazioa desberdina dela ikusten da.
- Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea tresna garrantzitsua da. Aipaturako tresna ez da sail eta departamentu ezberdinetan modu berdinean erabiltzen.

III. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZA NAGUSIAK

- Sail batzuetatik beste batzuetara ere sentsibilizazio maila oso ezberdina da, eta baita sail bakoitzaren barruan ere.
- Langile batzuek uste dute teknikariek prestakuntza falta dutela berdintasun gaietan; beste batzuek, ordea, pentsatzen dute prestakuntza badutela eta ez dagoela horren beharrik.
- Orokorrean teknikariek badakite hizkuntzaren erabilpen ez sexista nola egin, baina, ez nola sartu genero perspektiba bere sailean edo plan estrategiko espezifiko batean.

III. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZA NAGUSIAK

- Emakumeen Elkartearen ondorioak:
 - Andretxea edukitzea modu positiboan baloratzen dute (dinamizatzaileen dedikazio orduak gutxiegi direla eta lan baldintzak eskasak) ; espazio fisikoari dagokionez, txikia geratzen dela eta ez dela irisgarria.
 - Eibarko Udalarekin dagoen komunikazioari dagokionez, Berdintasun Teknikariarekin daukaten harremanarekin oso pozik agertzen dira, ez ordea gainontzeko sailekin, bereziki kultur sailarekin (komunikazio bideak ez dira egokiak eta inplikazio falta).

III. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZA NAGUSIAK

- Emakumearen Mahaitik egiten den lanarekin pozik daude. Parte hartzea bermatzen duen tresna dela diote.
- Jabetze Eskolari dagokionez, oso modu positiboan baloratzen dute. Hobekuntza bezala, aurrekontu handiagoa egon beharko litzatekeela ekintzaren zabalkundea egiteko.

AZKEN GOMENDIOAK

- Berdintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Saisetik bereiztea eta sail independente bihurtzea.
- Genero perspektiba txertatzen duten egitasmoak irizpide orokor bezala aintzat hartzea eta sail guztietan ezartzea.
- Berdintasunaren Aldeko Gobernantza Hobetzea: sail bakoitzerako derrigorrez bete beharreko neurriak biltzea, eta berauek betetzearen garrantzia jakinaraztea sailei.
- Zeharkakotasuna: Sail eta Departamentu guztiek planaren ardatz estrategiko bakoitzean konpromisoak hartzea.
- Udaleko Sail ezberdinetako teknikarien inplikazioa, helburuak zehaztuz eta ekintza errealak finkatuz; eta Berdintasun Planean inplikaturako sailetako teknikarien koordinazio bilerak.

AZKEN GOMENDIOAK

- Formakuntza: derrigorrezko izaera duten prestakuntza-ekintzak sartzea.
- Sexuaren arabera berezitako datuak: udal sail ezberdinen datuak biltzen dituzten programa informatikoetan sexu aldagaia sartzea.
- Ebaluazio fitxak: Planean sartutako ekintza ezberdinak burutzeko arduraduna den teknikariari ebaluazio fitxa errazak ematea.

IV BERDINTASUN PLANA: EGITURA ETA JARRAIBIDEAK

Plan honek oinarrizko bi zutabe jasotzen ditu:

1. Gizon eta emakumearen berdintasuna lortzeko Gobernantza hobetzeko neurriak
2. Programa multzo bat, dagozkien helburu eta ekintzekin, hiru ardatzetan sailkatuta.

GOVERNANTZA ATALAREN HELBURUAK

- Udaleko Berdintasun Zerbitzua indartu eta bultzatzea.
- Berdintasun Planaren edukia ezagutzera eman eta bere jarraipena egitea.
- Udaleko egunerokotasunean genero ikuspuntua txertatzea.
- Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasuna bultzarazteko neurriak ipintzea.
- Komunikazio bideak hobetzea.

PLANAREN ARDATZAK ETA PROGRAMAK

- **1. Ardatza: Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea:**
 - 1. Programa: Balioak aldatzea
 - 2. Programa: Ahalduntze pertsonala laguntzea
 - 3. Programa: Ahalduntze kolektiboa laguntzea
 - 4. Programa: Ahalduntze sozial eta politikoa laguntzea

○ **2. Ardatza: Gizarte antolakuntza erantzunkidean aurrera egitea**

- 5. Programa: Erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera berriak.
- 6. Programa: Berdinkatze erantzunkide.

○ **3. Ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.**

- 7. Programa: sentsibilizazioa eta prebentzioa
- 8. Programa: detekzioa eta arreta.

IV. Berdintasunerako Udal Planari buruzko informazio gehiago:

*Udaleko WEBa :

<http://www.eibar.eus/es/ayuntamiento/areas/servicios-sociales-1/igualdad/IVPlandeIgualdad.pdf/view>

* Berdintasun Zerbitzua. Bista Eder kalea 10, 4. pisua 943 708440

* Andretxea. Zezenbide kalea 9, bajo 943 700828

WEBa:

<http://andretxea.kzcomunidades.net/es/html/Documentos/IVPlandeIgualdadMunicipal/8/216.shtml>

Facebook: <http://facebook.com/andretxea.eibar>



QR Kodea
Andretxea